

BEZEROEKIKO HARREMANAK



Atal honetan, gure bezeroekin izango dugun harreman mota azalduko dugu. Guretzat, bezeroek gurekin eroso sentitzeak da garrantzitsuena, bai erosteko garaian bai bestelako uneetan. Horretarako, gure ile-lehorgailua gure webgunean eta denda handietan eskainiko dugu, eta horrela mundu osoak gure produktua erraz eros ahal

izango du.

Batetik, Carrefour eta Mediamarkt bezeroak ile-lehorgailuarekin harreman zuzen bat eukiko dute, hobeto ikusi dutelako eta hori erosketa erraztu dezakelako. Gainera, Carrefour edo Mediamarketan lengileek gure produktuari buruz hitz egin dezakete bezeroekin, eta horrela bezeroa edozein zalantza balinbadauka langileak argituko dio zuzenean.



Bestetik, webgunean produktuarekiko informazio gehio eta errazago lortuko dute. Webgunean produktuaren azaplen guztia, erabilera, ezaugarriak, zerez dago eginda... datu guzti horiek egongo direlako. Horrez gain, zerbitzu automatizatu bat egongo da, atal hori galderentzako izango da, horrela bezeroek nahi duten informazioa lor dezakete inorrek hitz egin gabe.



Autozerbitzua ere egongo da aukera bezala, bai webgunean eta bai denda handietan. Horrek esan nahi du bezeroek beraiek ordaindu ahal izango dute inorren laguntzarik gabe. Aukera hau bezeroeari autonomia bat bere gustu eta beharren arabera erosteko, horrela batzuentzat erostea erosoago eta

atseginago egiten zaizkie.

Azkenik, bezeoren iritzia oso garrantzitsuena iruditzen zaigu, beraz webgunean iruzkinak uzteko aukera egongo da. Horrela, bezeroek beraien esperientzia pertsonala partekatu ahalko dute, eta hori guretzat gauza on bat da, gure akatsak hobetzeko eta kontuan hartzeko.